



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko ekainaren 28a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei erreko-
nozimendua adieraztekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen baita arautu ditzan banku-entitateen
bezeroarentzako arreta presentzialeko gutxieneko zerbitzu batzuk. Eskubide Sozietateko Batzordean iza-
pidetzea (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasu-
naren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, García Orcoyen ospitalean ZIU berria eraikitzeke eta Larrialdi Zerbitzua handitzeko lizitazioa
geldiarazteko eskariari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (15. or.).

—Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko diren, desadostasunezko gobernu-erabakiak edo kontu-hartzaile-
tzaren nahitaezko txostena ez daukatenak minimizatzeke. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jau-
nak egin du (15. or.).

—Galdera, klima aldagetari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Legearen artikuluko batzuen inguruan
Estatuak adierazi dituen desadostasunei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).

—Galdera, Estellerriko biblioteka mugikorra ezartzeke buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du
(17. or.).

—Galdera, erretako zonaldeetako fauna autoktonoari baso-suteek ekarritako ukipenari buruzkoa. Ainhoa
Aznárez Igarza andreak egin du (17. or.).

- Galdera, justiziaren arloan haurren sexu-abusuaren atzematea eta haren aurkako borroka indartzeko neurri buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Kontu-hartzailetza Orokorren txostenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetarako eta Ekonomia eta Ogasun Departamenturako FFP2 maskaren horniduraren larrialdiko espedientea dela-eta. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Sua lurzoru urbanizaezinean nola erabili, oihaneko suteak prebenitzeko, arautzen duen 222/2016 Foru Agindua aldatzeko proiektua aurkezteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, azken egunotan Nafarroan gertatu diren baso-sute suntsitzaileetan jarduketak koordinatzeko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak izandako esku-hartzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko azaroaren 16an Espainiako Gobernuaren ordezkariari igorritako gutunari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak COVID-19 legegintzaldian premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzko 10-22/PEI-00247 informazio eskaerarako eta 10-22/PES-00143 galderarako erantzuna zentralizatzeko arrazoiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Moves III funtsen kudeaketari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren neurri buruzkoa, prezioen igoerari aurre egite aldera. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuan adin txikiko seme-alabak zaintzeagatik lanaldia murrizteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (22. or.).
- Galdera, basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan psikologoak sartzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (23. or.).
- Galdera, joan den ekainaren 16an Platena eta Infona planak aktibatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, joan den larunbatean Sánchez lehendakariak inflazioari begira iragarritako neurri-sortari eta horrek Nafarroan izanen duen eraginari buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, izan daitezkeen sute-boladen aurreko prebentzio planei eta neurri buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Ukrainiaren inbasioaren ondoriozko nazioarteko krisiaren eraginak apaltzeko neurri-sorta berriari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, azken egunotan Nafarroa suntsitu duten suteen kudeaketaren ondorengo kargugabetzei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (26. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hiru kideak hautatzea. Hautagaiak aldarrikatzea (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2022ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“1. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Foru lege honen helburua da arautzea Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat edozein modutan eta esparrutan jasan duten pertsonak biktimatzat jotzeko eskubidea, eta argitzea zer testuingurutan gertatu ziren egitate horiek, foru lege honetan ezarritako ondorioekin eta irismenarekin.

2. Zehatzago, honako hauek dira foru lege honen xedek:

- Edozein esparrutan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimei pairatu duten kaltea onartzea eta pertsona horiei erreparazioa ematea.

- Biktimen errekonozimendua eta arreta bultzatzea, banaka zein taldean.

- Giza eskubideekiko errespetua hedatzen laguntzea, elkarbizitza demokratikora beharrezkoak diren zutabe sendoak eraikitzeke”.

Zioak: Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetan dudarik gabe gertatu diren abusetara mugatu orde, gainerako guztiak ere jasotzea. Horrek ahalbidetuko luke behar bezala aitortu ez diren beste biktima batzuk ere aitortzea.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honetan arautzen da nola emanen zaizkien errekonozimendua eta laguntza Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimei, hain zuzen ere Justizia Administrazioaren jarduteko mekanismoen bitartez halakorik jaso ez dutenei.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bere jardunean epaitegi eta auzitegi eskudunen zigor-arloko jurisdikzio eskusiboan errespetatuko du beti.

2. Foru lege honen eremu subjektiboan honako hauek daude: Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkietela adierazten duten pertsonak, hain zuzen ere erakundeek biktimatzat jo ez dituztenak.

Nafarroan abusuak jasan dituela adierazi duen pertsona bat hilez gero, honako hauek eskatzen ahalko dute hura biktima dela adierazteko:

a) Hildako pertsonaren ezkontidea, legalki bananduta ez bazeuden, edo gutxienik heriotza-unearen aurreko bi urteetan zehar harekin antzeko afektibitate-harremanez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsona, salbu eta ondorengotza amankomuna izan bazuten, ezen kasu horretan nahikoa izanen da elkarbizitza soila; eta hildakoaren seme-alabak.

b) Hildakoaren aitak eta amak, bilobek, senideek eta aitona-amonek.

Lege honetan arautzen diren eskubide-urrazteak pairatu dituen pertsona bat hiltzen bada biktima-errekonozimendurako prozedura hasi ondoren, aurreko paragrafoan azaltzen diren pertsonek aurrera egin ahal izanen dute prozedurarekin. Bestela, prozedura amaituko da, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean administrazio-prozedura gerora sortutako arrazoiengatik amaitzeaz ezartzen denarekin bat etorritik.

3. Lurralde-eremuaz denaz bezainbatean, foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean gertatu diren sexu-abusuen biktimei aplikatuko zaie”.

Zioak: Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetan dudarik gabe gertatu diren abusuetara mugatu ordez, gainerako guztiak ere jasotzea. Horrek ahalbidetuko luke behar bezala aitortu ez diren beste biktima batzuk ere aitortzea.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“4. artikulua. Pertsona bat biktima dela eta errekonozimendu ofizialerako eskubidea duela adieraztea.

Foru lege honen ondorioetarako, adierazten bada pertsona bat Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat, edozein eratan eta esparrutan, jasan duela eta horren biktima dela, pertsona horrek eskubidea edukiko du biktima-errekonozimendu ofizialerako.

Errekonozimendu ofizial horrek bateragarria izan beharko du biktimak bere intimitatea gordetzeko daukan eskubidearekin, berariaz eskatuz gero. Beraz, biktimak eskatu ahal izanen du errekonozimenduaren barri ez zabaltzeko eta inori ez jakinarazteko”.

Zioak: Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetara abusuetara mugatu ordez abusuen biktima aitortugabe guztiak jasotzeaz gain, “publikoa” omen den baina aditzera eman ezin den errekonozimenduaren kontraesana zuzentzea.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“5. artikulua. Lege honen xede direnen betebeharrak.

Sexu-abusuen biktimaren errekonozimendua eduki nahi duten pertsonak honako hauek egin beharko dituzte:

a) Onartu beharko dute foru lege honen II. tituluan arautzen den Errekonozimendurako Bartzordeak noiznahi egiaztatzea aurkeztutako datuak eta dokumentuak, eta biktimaren errekonozimendua ebazteko eskatzen duen informazio guztia eman beharko diote.

b) Arautegian onuraduna izateko ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bai eta bertan ezartzen diren betebeharrak ere.

c) Gertaerak argitzeko behar diren egiaztapeak eta kontrolak onartu beharko dituzte”.

Zioak: Artikuluaren testua hobetzea, eta zehaztea ez zaiela errekonozimendua ematen “giza eskubideen urratzeen biktimei”, baizik eta “sexu-abusuen biktimei”

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“6. artikulua. Baldintzak ez betetzea.

Lege honetan ezartzen dena ez betetzeak edo datu faltsuak aurkezteak biktimaren errekonozimendua galtzea ekarriko du. Ebazpena errekonozimendurako eskumena daukan organoak ematen du, bidezko espedientea egin eta interesdunak entzun ondoren, sei hilabete iragan baino lehen”.

Zioak: Artikuluaren idazkera hobetzea gaztelaniaz, “reconoce como” esaten baita, eta ez “de”.

6. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“1. Errekonozimendurako Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo independente gisa. Honako eginkizun hauek izanen ditu: aurkeztutako eskaerak baloratzea eta, foru lege honen babesean, onar daitezten edo bazter daitezten proposatzea; eta, bidezkoa denean, pertsona bat Nafarroan sexu-abusuen biktima izan dela adieraztea. Batzordearen indarraldia sei urtekoa izanen da, eta amaitzen denean beste horrenbeste luzatuko da”.

Zioak: Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetan izandako biktimetara ez mugatzea, beste biktima batzuk baztertuta.

7. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

8. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“1. Batzordean hamaika kide ariko dira. Sei urterako izendatuko dira. Hona:

a) Nafarroako Biktimei Laguntzeko Bulegoaren atalburua. Idazkaria izanen da.

b) Biktimen arloko esperientzia duten lau pertsona. Horien artean historian, zuzenbidean eta psikologian adituak egon behar dira nahitaez. lau pertsona horietako bat Nafarroako Gobernuak Justizia Departamentuaren titularrak proposatuta izendatuko da, eta beste hirurak Nafarroako Parlamentuak proposatuta. Batzordean aritzeko izendatzen diren pertsonen ezin izanena zaie utzarazi kargua, beren betebeharren ez betetze larria egiten ez badute; halako ez betetzea gertatuz gero, ebazpen arrazoitua beharko da kargua utzarazteko, interesduna entzun ondoren.

c) Abusua gertatu den esparruko ordezkari bat. Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetan egindako abusuak direnean, Nafarroako Eliza Katolikoak proposatuko du ordezkaria, Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzak izendatuta. Ikastetxe publikoen esparruan egindako abusuak direnean, Hezkuntza Departamentuak proposatuta izendatuko da ordezkaria. Ikastetxe pribatu laikoan esparruan egindako abusuak direnean, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta izendatuko da. Espe-

txearen esparruan egindako abusuak direnean, Barne Ministerioak proposatuta izendatuko da. Indar Armatuaren esparruan egindako abusuak direnean, Defentsa Ministerioak proposatuta izendatuko da. Polizia esparruan egindako abusuak direnean, Barne Ministerioak proposatuta izendatuko da. Kirolaren edo aisiaren esparruan egindako abusuak direnean, kasuan kasuko kirol federazioak edo klubeko zuzendaritzak proposatuta izendatuko da. Esparru psikiatrikoan egindako abusuak direnean, Osasun Departamentuak proposatuta izendatuko da. Nafarroako Umezurztegian, Nafarroako Amatasun eta Inklusa Etxean edo Nafarroako Gobernuaren adingabeentzako harrera etxebizitzetan egindako abusuak direnean, Eskubide Sozialetako Departamentuak proposatuta izendatuko da. Lan esparruan egindako abusuak direnean, ustez eragindako enpresak proposatuta izendatuko da, edo, halakorik ezean, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak proposatuta. Psikiatriaz kanpoko medikuntzaren esparruan egindako abusuak direnean, Medikuen Elkargoak proposatuta izendatuko da. Esparru politikoan eta sindikalean egindako abusuak direnean, eragindako erakunde politiko edo sindikalek proposatuta izendatuko da. Azkendutako enpresa, ikastetxe, aisia-erakunde edo erakunde politiko eta sindikalen esparruan egindako abusuak direnean, arduradun izandakoei aukera emanen zaie kontsultatuak izateko eta bileretan parte hartzeko, hitzarekin baina botorik gabe. Familiaren esparruan egindako abusuak direnean, Arartekoak proposatuta izendatuko da ordezkaria.

d) Nafarroan sexu-abusuen biktima izan diren pertsonen elkarteek, indarreko legeriaren arabera eraturakoek, proposatutako bi pertsona.

e) Abokatuen Elkargoaren ordezkari bat.

f) Foruzaingoaren, Polizia Nazionalaren edo Guardia Zibilaren ordezkari bat, honelako delituetan espezializatua.

g) Nafarroako Psikologiaren Elkargoaren ordezkari bat, sexu-abusuetan espezializatua”.

Zioak: Errekonozimendurako Batzordeak kide gehiago izatea, aitortu gabeko abusuak gertatu diren esparru guztietako ordezkariak hitza izan dezaten. Psikologiaren, abokatutzaren eta segurtasun indarren arloetako pertsonak ere gehitzea, gai hauetan adituak.

8. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“10. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Errekonozimendurako Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, bilkura eta eztabaidak egin eta erabakiak harteari dagokionez, beharrezkoa izanen da haren kideetatik zortzi bertaratuta egoitea, gutxienez ere. Erabakiak hartuko dira bertarazten diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinke-tarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

Batzordeko kideek eskatu ahalko dute aktan jaso dadila hartutako erabaki baten aurka eman duten botoa, edo alde eman duten botoaren zentzua. Halaber, kideren bat gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez dagoenean, boto partikular bat aurkeztu ahalko du idatziz, erabakia hartu eta bi eguneko epean, eta hura testu onetsiari gehituko zaio.

2. Batzordeari dagokio barneko funtzionamendu arauak onestea, eta horiek osatzen ahalko dira bat etorri sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legeriak kide anitzeko organoei dagokienez ezartzen duenarekin.

Errekonozimendurako Batzordeak berak erabakiko du bere bileren maiztasuna, aurkeztutako eskaerak kontuan harturik.

3. Bere eginkizunetan jardutean, Batzordeak aintzat hartuko ditu genero-ikuspegia, LGTBI kolektiboa eta beste talde zaurgarri batzuk”.

Zioak: Errekonozimendurako Batzordearen funtzionamendurako behar den quoruma handitzea, Batzordearen zorrotasuna eta pluraltasuna bermatzeko.

9. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

13. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“1. Nafarroan abusuak jasan dituzten pertsonak biktimatzat jotzeko prozedura horretarako eskaera aurkeztu denean hasiko da. Eskaera lege honen eremu subjektiboko pertsonak aurkeztu ahal izanen dute Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian arautzen den bezala”.

Zioak: Aitortu gabeko biktima guztiak jasotzea, ez bakarrik Eliza Katolikoarekin lotutako esparruetan abusuak jasan dituztenak.

10. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“2. Errekonozimendurako Batzordeari dagokio arrazoiak emanda proposatzea eskaerak ez daitezten izapidetzeko onartu, haiek igorri eta 50 eguneko gehieneko epean, bai eta onartutako eskaerak aztertzea eta, arrazoiak emanda, biktima-izaeraren deklarazioaren proposamena onartzea edo aurkeztutako eskaera ukatzea ere”.

Zioak: Gaiaren konplexutasuna dela-eta, Errekonozimendurako Batzordeari denbora gehiago ematea eskaerak izapidetzeko onartuko dituen ala ez erabakitzeko.

11. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke edukia:

“3.1. Behin eskabidea izapidetzeko onartuta, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, honako jarduketak hauek egin beharko ditu:

a) Eskatzaileari entzun, aurkeztu dituen dokumentu eta frogei buruzko informazioa osoagotzeko. Horretarako, eta eskatzaileak aukeratutako entzute modua errespetatuz, elkarrizketa baterako hitzordua jarri ahalko dio eskatzaileari, eta batzordeko idazkariak horren akta eginen du egokitzat jotzen diren baliabide teknikoak erabiliz.

b) Espedienteak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen aurrekari, datu edo txostenak eskatu beste administrazio publiko, entitate edo organo pribatu zein publiko batzuei, betiere datu pertsonalen babesari buruzko legeria indardunean finkatutako mugen barruan.

c) Eskatzaileak aurkeztutako informazioa erkatu egitateak ustez gertatu ziren eta haiek argitzeko edozein inguruabar jakin lezaketzen zentro, erakunde eta abarretako arduradunekin.

3.2. Halaber, Errekonozimendurako Batzordeak honako jarduketa hauetakoren bat egin ahalko du, egokitzat jotzen badu:

a) Egitateen zuzeneko nahiz zeharkako ezagutzarengatik edo arloan duten esperientziarengatik eskabideari buruz informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonen txostena edo lekukotasuna eskatu.

b) Egitateak modurik onenean argitzeko eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egin”.

Zioak: Errekonozimendurako Batzordearen funtzionamendua zorrotzagoa izatea.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“15. artikulua. Eskaerak ebaztea.

1. Espedientean jasotako dokumentazioa eta gainerako frogabideak aztertu ondoren, aurkeztutako eskabide bakoitzari buruzko txosten arrazoitu bat egingen du Errekonozimendurako Batzordeak, eta bertan aztertuko du ea foru lege honen aplikazio-eremuan ezarritako baldintzak betetzen diren; laburpen bat egingen du biktimaren eskubideen urraketa eragin zuten egitateei buruz, oinarri gisa darabiltzan frogabideak eta abusuak egin ziren esparrua zehaztuta; eta proposatuko du, kasua bada, foru lege honen ondorioei dagokienez biktima deklaraztea.

2. Eskabidea jaso eta gehienez ere zortzi hilabeteko epean egin beharko da aipatutako txostena, salbu eta epe horren luzapen arrazoitua justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak badaude eta ebazpen bidez luzatzen bada.

3. Egindako txostena Nafarroako Gobernuan justiziaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari igorriko zaio, eta horrek, 40 eguneko gehieneko epean, kasuko ebazpena emanen du, eskabidea baietsi edo ezetsiko duena.

4. Ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, eta zer errekurso jar daitezkeen adieraziko zaie.

5. Epe hori ebazpenik eman gabe igarotzen bada, interesdunek administrazio-isiltasunaren bidez eskaera ezetsitzat jotzen ahalko dute. Nola-

nahi ere, Administrazioak ebazteko betebeharra izanen du.

6. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka gora jotzeko errekursoa jartzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, eta horren ebazpenak administrazio bidea amaituko du”.

Zioak: Argi identifikatzea abusuak gertatu ziren testuingurua, eta departamentuak ebazpena emateko epeak laburtzea.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“18. artikulua. Laguntza-neurriak

Nafarroako Gobernuak abusuen biktimen kolektiboari laguntzeko neurriak hartzen ahalko ditu: besteak beste, zuzeneko aholkularitza, dirulaguntzak eta erakunde publiko eta pribatuekiko bitartekotza.

Laguntzak ematea sustatuko du, halaber, irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakunde jardueraren garapenerako, baldin eta haien xede nagusia bada lege honen aplikazio eremuko biktimen interesak ordezkatu eta defendatzea, eta biktimen zaurgarritasun bereziko egoera pertsonal edo kolektiboak gairitzen laguntzeko programak garatzen badituzte. Berezi-ki, dirulaguntzak emanen dira arreta programetarako, oroimen eta sentsibilizazio sozialeko programetarako eta biktimei eta haien eskubideei buruzko ikerketa proiektuetarako”.

Zioak: Biktimen elkarteek legitimoki ordezkatzeko dituzte beren kideak. Baina biktimak gehiago dira, eta pluralagoak, eta legearen jatorrizko testuak ematen dien ordezkartasun hori ez dago frogatuta.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko litzateke edukia:

“20. artikulua. Biktimen eta beren elkarten egitekoaren errekonozimendua

Nafarroako Gobernuak biktimen eta beren elkarten solaskide eginkizuna aitortuko du, funtsezko lana egiten baitute kontzientziazioan eta

lege honetan jasotzen diren giza eskubideen urratzeen biktimei nazioartean aitortu zaizkien egia-
 rako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideen
 defentsan. Beraz, kontsulta egin beharko zaie
 parte-hartze mekanismo egokien bitartez, foru
 lege hau garatu edo betetzeko eman eta haiei era-
 giten dieten xedapen guztietan”.

Zioak: Biktimen elkarteek legitimoki ordezkaz-
 tzen dituzte beren kideak. Baina biktimak gehiago
 dira, eta pluralagoak, eta legearen jatorrizko tes-
 tuak ematen dien ordezkariatasun hori ez dago fro-
 gatuta.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legearen izenburua aldatzeko zuzenketa:

Legearen izenburuaren ordezkari honako hau jar-
 tzea proposatzen da: “Nafarroan edozein esparru-
 tan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozim-
 endua adierazteko Foru Legea”.

Zioak: Gainerako taldeek proposatutako testu-
 ko zioen azalpenak berak dioten moduan, Eliza
 Katolikoaren inguruan ez ezik beste hainbat espa-
 rrutan ere gertatu dira sexu-abusuak. Ez dugu
 uste bidezkoa denik esparruetako batean gertatu-
 tako abusuen biktimei errekonozimendua adieraz-
 tea eta ez esparru guztietakoei.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legearen bigarren titulua aldatzeko zuzenketa:

Legearen bigarren titulua aldatzea proposatzen
 da. Hona: “BIGARREN TITULUA. Edozein espa-
 rrutan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta
 sexu-askatasunaren aurkako eraso biktima
 aitortu gabeen errekonozimendurako batzordea”.

Zioak: Gainerako taldeek proposatutako testu-
 ko zioen azalpenak berak dioten moduan, Eliza
 Katolikoaren inguruan ez ezik beste hainbat espa-
 rrutan ere gertatu dira sexu-abusuak. Ez dirudi
 bidezkoa esparruetako batean gertatutako abu-
 suen biktimei errekonozimendua adieraztea eta ez
 esparru guztietakoei. Gainera, biktima aitortu
 gabeak direla zehaztu behar da.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko I. atala aldatzeko zuzenketa:

Zioen azalpeneko I. atala aldatzea proposa-
 tzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Sexu-abusuen biktimak erasotzaileekiko men-
 dekotasun edo gutxiagotasun egoera sozial, eko-
 nomiko edo fisikoan dauden pertsonak izan ohi
 dira, hainbat inguruabar tarteko. Horren ondorioz,
 maiz biktimak ez dira ausartzen abusuak jendau-
 rrean edo epaitegian salatzea, edo ez dute sala-
 tzeko bitartekorik aurkitzen, edo, besterik gabe,
 entzungor egiten diete haien eskubideak zaindu
 behar lituzketenek nahiz gizarteak, oro har. Izan
 ere, sarritan biktimiek ez dute salatzen estigmati-
 zatuko dituzten beldur direlako, lotsatu egiten dire-
 lako edo egileenganako halako barkaberatasun
 batek geldiarazten dituelako. Nahiz eta krimen
 horiei buruzko sentikortasun soziala pixkanaka
 areagotu eta 1978tik hasita legegintzak aurrera
 egin ahala nabarmen hobetu den biktimei zor
 zaien babesa, aitortu beharra dago oraindik ere
 abusu horien kopuru zehaztu gabe baina adieraz-
 garri bat zigorrik gabe geratzen dela eta abusuak
 jasan dituztenek ez dutela inolako ordainik jaso-
 tzen.

Arestian aipatu bezala, biktimen mendekota-
 sun edo gutxiagotasun hierarkikoagatik gertatu ohi
 dira abusuak, baina ez horregatik bakarrik, zeren
 oso maiz gizartearen, polizia indarren eta agintari
 judizialen ikusmenetik kanpo dauden esparruetan
 gertatzen baitira abusuak. Esparru horietako bat-
 zku dira edo izan dira barnetegi eta ikastetxe erli-
 jioso eta laikoak, gurtza tokiak, espetxeak, ospita-
 le psikiatrikoak, umezurtegiak, harrera zentroak
 eta osasun mentaleko zentroak, kirol eta gazte
 klubak, erakunde politikoak, lantokiak eta kuarter
 militarrek. Zenbait ikerlanek, ordea, biktimaren
 familia bera seinatu dute abusuen gertaleku
 nagusitzat. Dena dela, garrantzitsua da
 nabarmentzea ia edozein esparrutan gertatzen
 ahal direla.

Gure erkidegoan ere errealitate mingarria da
 sexu-abusuak zigorrik gabe eta jasan dituztenak
 erreparaziorik gabe egotea. Hori eta administrazio
 publikoek giza eskubideen urraketen aurrean esku
 hartzeko duten betebeharra dira foru lege honen
 arrazoiak”.

Zioak: Testu horrek argiago azaltzen ditu foru
 lege proposamen hau aurkeztea justifikatzen
 duten arrazoiak.

18. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko II. atala aldatzeko zuzenketa:

Proposatzen da zioen azalpeneko II. ataleko lehenbiziko bi paragrafoak aldatzea. Horien ordez honako paragrafo hau jarriko litzateke:

“Administrazio publikoek giza eskubideen urratzeen aurrean esku hartu beharra nazioartean hitzartutako eta ohiturazko arauen ondoriozkoa da, eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna eta Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Anker, Gizagabe edo Apalesgarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmena sinatu dituzten estatuei dago-kie. Espainia estatu horietakoa dugu”.

Zioak: Testu hori egokiagoa, laburragoa eta argiagoa da.

19. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko II. atalari paragrafo bat gehitzeko zuzenketa:

Zioen azalpeneko II. atalaren bukaeran paragrafo hau gehitzea proposatzen da:

“Horrenbestez, foru lege honen bitartez errekonozimendua eman nahi zaie legeria indardunaren arabera ez errekonozimendurik ez erreparaziorik jaso ez duten biktima horiei guztiei”.

Zioak: Testu hori egokiagoa, laburragoa eta argiagoa da.

20. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. atala aldatzeko zuzenketa:

Zioen azalpeneko III. atala aldatzea proposatzen da. Honela idatzita geldituko litzateke:

“Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko foru lege honen egitura honelakoa da: atariko titulua eta lau titulu.

Atariko tituluan xedapen orokorrak biltzen dira. Foru legearen xedea eta helburua direla-eta, Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren

edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasan dutenak biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, egin zaien kalteaz ohartarazteko, bakoitzaren eta taldearen errekonozimendua sustatzeko, eta giza eskubideei eta elkarbizitza demokratikoari zor zaien errespetua hedatzeko. Aplikazio-eremua Nafarroako Foru Komunitatea da, Justizia Administrazioaren jarduteko mekanismoen bidez ez errekonozimendurik ez erreparaziorik lortu ez duten biktimatzat. Eremu subjektiboan eskubideak urratu dizkiotela adierazten duten pertsonak daude. Nolanahi ere, norbait hilez gero, ezkontideak eta hurkoak ere legitimatuta egonen dira. Titulu honen amaieran jarduteko printzipioak ezartzen dira, eta horietan aipatu beharrekoa da beharrezkoa dela Administrazioak zorrotzasun handiarekin dokumentatzea zer gertatu den, biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzeko, abiaburutzat hartuta haien alde egitea, zeren eta, azken finean, berak baitaude legegintzaren ardatzean. Horrez gainera, honako printzipio hauek ere ezartzen dira: azkartasuna, erakundeen arteko lankidetzatza (beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun ahal izateko), hirugarrenen eskubideak bermatzea, eta subsidiariorotasuna ekintza penalaren aurrean.

Lehen tituluan biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, eta ezartzen da biktimek intimitaterako eskubidea dutela berek nahi dutenean. 5. eta 6. artikuluetan arautzen dira legearen onura jasoko duten pertsonen betebeharrak eta horiek ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

Bigarren tituluan Errekonozimendurako Batzordea jorratzen da: sorkuntza eta osaera arautzen dira. Osaeran aipatu behar da teknikari adituez gainera biktimen elkarrekin eta abusuak gertatu diren esparruetako ordezkariak ere egon daitezkeela, ahalik gehien lagundu dezaten egia iristeko bidean. Batzordearen indarraldia sei urtekoa izanen da. Batzordearen idazkaria Biktimei Laguntzeko Bulegoko atalburua izanen da. Honek batzordearen jardunaren oinarrian dagoen administrazio-organoaren eta batzordearen beraren arteko koordinaziorako lanak egiten ditu. Batzordeko burua batzordekideen artean hautatuko da, eta hauek modu pluralean hautatuko dira. Batzordekideek adituen laguntza eduki ahal izanen dute beharrezkotzat jotzen denean.

Batzordearen egitekoak honako hauek izanen dira: behar den kasuetan pertsona biktima dela adieraztea, batetik, eta urteko jardueren oroitidazkia egitea, bestetik, herritarrek gertatutakoaren berri eduki dezaten. Oroitidazkiak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, eta Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren Atarian plazaratuko ditu.

Horrez gainera, batzordearen barneko jarduna arautzen da: deialdiak, aldizkako bilerak, eta erabakiak hartzeko modua. Foru legean arautzen ez den guztirako osagarri gisa ezartzen da Araubide Juridikoaren Legean kide anitzeko organoek arautzen dena aplikatuko dela. Jarduteko printzipioak direla-eta, berriz ere erakundeen arteko lankidetzak aipatzen da, bai eta hirugarren pertsonen eskubideen bermea, eta subsidiariorotasuna prozedura penalaren aurrean, epaileen eta auzitegien zigor-erloto jurisdikzio eskusiboa errespetatzeko.

Horrela, foru lege honek egitarako, justiziarako, memoriarako eta erreparaziorako eskubideak bermatzen dizkie esparru guztietan egindako sexu-abusuen biktimei.

Hirugarren tituluan arautzen da nola eskatu behar duten abusuak jasan dituzten herritarrek biktimitzat jotzeko. Azken batean, izapideak has-teko mekanismo arin bat bermatzen da, gehiegizko betekizun burokratikorik gabekoa, eta norbaiti biktima izatea aitortzeko egin beharreko ikerketa azkar, zorrotz, egiaztagarri eta eraginkorra eragotzi edo oztopatu dezaketan hesiak eta zailtasunak ezabatzen dira.

Errekonozimendurako Batzordearen jardueren euskarri administratiboa Biktimen Arretarako Bulegoaren barnean antolatzea aukeratu da; batzorde horrek agintzen ahalko du ikerketarako eta espedientearen instrukziorako jarduerak egin daitezela, eskatzaileak ekarritako informazioa egiaztatzeko, aurrekari, datu edo txostenak eskatzeko, lekukotasunak eskatzeko edo, laburbilduz, gertaerak hobeki argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egiteko. Batzordeak erabakitzen ahalko du eskaerak ez onartzea edo, arrazoiak azalduta, norbait biktima dela deklaratzeko proposatzea edo deklarazio hori ukatzea. Justiziaren arloan esku-menak dituen departamentuko titularraren ebazpen baten bidez eginen da deklarazioa, eta gora jotzeko errekurtsua jartzen ahalko da Nafarroako Gobernuaren aurrean, administrazio bideari amaiera emanaz. Isiltasuna ezezkua izanen da. Hala ere, prozedura osoan aginduzko epeak izanen dira eta modu arrazoituan baino ezin izanen dira luzatu. Administrazioak ezin izanen du inola ere saihestu ebazteko betebeharra.

Laugarren tituluan arautzen da nola emanen zaien laguntza biktimei eta nolako sustapen-neurriak ezarriko diren. Biktimei informazioa emateko ardurak Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoari esleitzen zaio. Horretan bere arautegiarekin bat etorritik jardun beharko du. Biktimek eskatuta, Justizia Departamentuak foru lege honen helburuak eta xedekak lortzeko egokitzat jotzen diren justizia

errestauratiboaren mekanismoak ezartzen ahalko ditu, dagokion zerbitzuaren bitartez.

Justizia errestitutiboaren mekanismoak biktimen eskubideei buruzko 2012/29/EB Zuzentzarauan arautzen dira. Horien bidez biktimek onurak jasotzen ahal dituzte: begirunezko tratamendua, banakakoa eta profesionala; informazio erabilgarria errestitutatzeko eta jasandako kalteetatik suspertzeko, eta behar denean prozedura judizialari aurre egiteko; hobeki erabakitzeke informazioa; beren segurtasuna eta duintasuna babesten dira, bai eta beren ahaideenak ere; berriz biktimitatzeko, beldurrarazteke edo errepresaliak jasotzeko arriskua murrizten da; konfiantza handiagoa dute erakundeetan.

Hara zer dioten Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak "Inpunitatearen aurka borrokatuz giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio multzo eguneratua" dokumentuan (1. printzipioa): "Inpunitatea da estatuak dituzten honako betebeharrak hauek urratzea: bortxaketak ikertu beharra; egileei dagokienez neurri egokiak ezarri beharra, batez ere justiziaren arloan, erantzukizun penalaren susmoetan dauden pertsonak auziperatzeko, epaitzeko eta zigor egokiak jartzeko; biktimei baliabide eraginkorrak eta jasandako kalteen ordaina eman beharra; egia jakiteke eskubide ukalezina bermatu beharra, eta bortxaketak berriz ez gertatzeko behar diren neurriak ezarri beharra".

Titulu honek ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari biktimen kolektiboek laguntzeko neurriak ezartzeko eta gertaerak modu zientifikoan ikertzea eta haien berri zabaltzea sustatzeko.

Tituluaren amaieran azaltzen da biktimek eta haien elkarteek zeregin garrantzitsua dutela, eta ezartzen da haiekin nahitaez hitz egin behar dela eragiten dieten xedapen guztiei buruz, parte hartzeke mekanismo egokien bitartez.

Lehenbiziko xedapen gehigarrian ezartzen da Errekonozimendurako Batzordea eratuko dela kideak izendatzen direnetik hilabete iragan baino lehen.

Bigarren xedapen gehigarrian datu pertsonalen babesa arautzen da, eta biktimak babesteko beste neurri batzuk ezartzen dira, inplikaturako pertsonen intimitaterako eskubidea zaindu nahian. Hain zuzen ere, aukeran dauden segurtasun-neurri zorrotzenak ezartzen dira.

Amaitzeko, azken xedapenetako lehenak Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen dio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan, eta azken xedapenetako

bigarrenak arautzen du legea Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean”.

Zioak: Testu honekin zioen azalpenak atal gutxiago ditu, eta askoz laburragoa eta argiagoa da. Gainera, Elizaren esparruan soilik egindako abusuen aipamenak ezabatzen dira, aipamenak esparru guztietara zabaltzen dira, eta, horrela, aitortu gabeko biktima guztiei eskaintzen ahal zaie erre-

parazioa. Halaber, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordearen “Inpunitatearen aurka borrokatuz giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio multzo eguneratua” dokumentuaren aipamen okerrak zuzentzen dira, oker aipatuta baitaude izenburua, printzipioaren zenbakia eta printzipioaren edukia. Ziur asko, pasarte hori hitzez hitz kopiatu da Andaluziako Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko 2017ko martxoaren 28ko Legetik, oker berberak baititu.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen baita arautu ditzan banku-entitateen bezeroarentzako arreta presentzialeko gutxienerako zerbitzu batzuk.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita arautu ditzan banku-entitateen bezeroarentzako arreta presentzialeko

gutxienerako zerbitzu batzuk. Mozioa 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/MOC-00020)

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuak aurtan ere bat egiten du LGTBI+ Kolektiboaren Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, zeina heldu den ekainaren 28an eginen baita, eta sexu-askapenaren bandera jarriko du ikusteko moduko leku batean, legebiltzarrak sexu-aniztasunarekin duen konpromisoaren agerkari.

Nafarroako Parlamentuak giza eskubideekiko konpromisoa berresten du, eta adierazten du beharrezkoa dela inbertitzea sexu-bestelakotasuna eta pertsonak beren sexu-orientazioa edo genero-identitateagatik ez diskriminatzen lagunduko duten politiketan. Horretarako, arreta, informazio, sentsibilizazio, prestakuntza eta kontzientziatorako programak eta proiektuak garatu behar dira, gure udalerririk sexu-bestelakotasuna-

ren adierazpen guztientzako gune askeak izan daitezten.

Nafarroako Parlamentuak hezkidetzaren derrigorrezko hezkuntza-balio gisa lantzearen aldeko apustua egiten du funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe guztietan.

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako LGTBI+ Foru Legea ezartzen jarraitzea, eta uste du sexu-orientazioari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-nortasunari buruzko prestakuntza beharrezkoa dela administrazio publiko guztietan eta bereziki gizarte-, osasun- eta landa-arloetan.

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gizarte askeago eta berdinezaleago bat eraikitzeko lan egiteko, eta eskatzen du familia-aniztasunari eta adineko LGTBI+ pertsonen zorian errespetua emateko. Horretarako, gure Erki-

degoko erakunde guztiekin, elkarteekin eta LGTBI+ kolektiboarekin lan egiteko konpromisoa hartzen du.

Parlamentuak ekitaldi bat egingen du ekainaren 28an, 12:30ean, Nafarroako Gobernuarekin eta LGTBI+ kolektiboekin batera eraikinaren atalondon, LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko”.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloari buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloari buruzkoa (10-22/POR-00244).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den astean jakin zen ezen Europako Bartzordeak, Europa Digitala programaren barruan, onetsi egin zuela IRIS-Berrikuntza Digitaleko Poloaren hautagaitza, EDIH-Digital Innovation Hubs europar sarearen parte izatekoa.

Zalantzarik gabe, onespren horrek indar garrantzitsua eskaintzen dio joan den legegintzaldian hasi zen eta behin betiko abiarazpenaren bidean aurrera doan proiektu bati.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin da azken garaian eta zer gelditzen da egiteko Berrikuntza Digitaleko Poloaren errealitate bat izan dadin gure erkidegoan?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, García Orcoyen ospitalean ZIU berria eraikitzeko eta Larrialdi Zerbitzua handitzeko lizitazioa geldiarazteko eskariari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, García Orcoyen ospitalean ZIU berria eraikitzeko eta Larrialdi Zerbitzua handitzeko lizitazioa geldiarazteko eskariari buruzkoa (10-22/POR-00245).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko

kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Lizarrako laguntzako burutzen ordezkariak Osasun Departamentuari eskatu diote García Orcoyen ospitalean ZIU berria eraikitzeko eta Larrialdi Zerbitzua handitzeko lizitazioa geldiaraz dezan, hori ez delako ospitaleak behar duena egungo eta etorkizuneko laguntzarako erronkei aurre egin ahal izateko. Halaber, eskatzen dute García Orcoyen ospitaleko plan zuzentzaile berri bat idatz dadin datozen hamarkadei begira, langileek parte hartuta, arkitektura-konponbideak ere bertan sartuta, ospitalearen etorkizuna bermatzeko.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Osasun Departamentuak asmorik al du eskari horri erantzuteko, plan zuzentzaile parte hartzaile bat bermatze aldera, eta Larrialdi Zerbitzua handitzeko lizitazioa geldiarazteko, Lizarrako Osasun Barrutiaren egungo eta etorkizuneko beharri-zanetara egokitze aldera?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko diren, desadostasunezko gobernu-erabakiak edo kontu-hartzaitzaren nahitaezko txostena ez daukatenak minimizatzeke.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer neurri hartuko diren, desadostasunezko gobernu-erabakiak edo kontu-hartzaile-

tzaren nahitaezko txostena ez daukatenak minimizatzeke (10-22/POR-00246).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu gogo ditu Nafarroako Gobernuko lehendakariak desadostasunezko gobernu-erabakiak edo kontu-hartzailetzaren nahitaezko txostena ez daukatenak minimizatzen?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuen inguruan Estatuak adierazi dituen desadostasunei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuen inguruan Estatuak adierazi dituen desadostasunei buruzkoa (10-22/POR-00247).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Landa Garapeneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

2022ko ekainaren 14an Estatuako Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak hartutako erabakiaren bidez negoziazioak hasi ziren, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 31, 33, 51, 60, 66, 67, 68, 79 eta 88. artikuluen, zarpigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrien, azken xedapenetako bigarren eta eranskinaren inguruan adierazitako desadostasunak argitze aldera.

Zer balorazio egiten du Landa Garapeneko Departamentuak, Estatuak Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 31, 33, 51, 60, 66, 67, 68, 79 eta 88. artikuluen, zarpigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrien, azken xedapenetako bigarren eta eranskinaren inguruan adierazitako desadostasunei buruz eta zer jarrera hartuko du aipatu artikuluetan azaltzen diren Nafarroaren eskumenak defendatzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Estellerriko biblioteka mugikorra ezartzeari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Estellerriko biblioteka mugikorra ezartzeari buruzkoa (10-22/POR-00248).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Estellerriko biblioteka mugikorraren ezarpena?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, erretako zonaldeetako fauna autoktonoari baso-suteek ekarritako ukipenari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, erretako zonaldeetako fauna autoktonoari baso-suteek ekarritako ukipenari buruzkoa (10-22/POR-00249).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ekainaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Norainoko ukipena izan dute suteek erretako eremuko fauna autoktonoari, babes bereziko eremuei, HBBEei, hazkuntza sasoiari, habiak egiteari, espezie babestuei eta abarrei begira?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, justiziaren arloan haurren sexu-abusuaren atzematea eta haren aurkako borroka indartzeko neurriei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, justiziaren arloan haurren sexu-abusuaren atzematea eta haren aurkako borroka indartzeko neurriei buruzkoa (10-22/POR-00250).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran, ekainaren 30ean, ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen justiziaren arloan haurren sexu-abusuaren atzematea eta haren aurkako borroka indartzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Kontu-hartzailtza Orokorraren txostenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetarako eta Ekonomia eta Ogasun Departamenturako FFP2 maskaren horniduraren larrialdiko espedientea dela-eta.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Kontu-hartzailtza Orokorraren txostenari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetarako eta Ekonomia eta Ogasun Departamenturako FFP2 maskaren horniduraren larrialdiko espedientea dela-eta (10-22/POR-00251).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ezkutatzen zaio parlamentari honi Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetarako eta Ekonomia eta Ogasun Departamenturako FFP2 maskaren horniduraren larrialdiko espedientea dela-eta Kontu-hartzailtza Orokorrak egindako txostena, 10-22/PEI 206 ekimen parlamentarioari erantzutean?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Sua lurzoru urbanizazinean nola erabili, oihaneko suteak prebenitzeko, arautzen duen 222/2016 Foru Agindua aldatzeko proiektua aurkezteari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Sua lurzoru urbanizazinean nola erabili, oihaneko suteak prebenitzeko, arautzen duen 222/2016 Foru Agindua aldatzeko proiektua aurkezteari buruzkoa (10-22/POR-00252).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik aurkeztu zen hain berandu Sua lurzoru urbanizazinean nola erabili, oihaneko suteak prebenitzeko, arautzen duen 222/2016 Foru Agindua aldatzeko proiektua?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, azken egunotan Nafarroan gertatu diren baso-sute suntsitzaileetan jarduketak koordinatzeko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak izandako esku-hartzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, azken egunotan Nafarroan gertatu diren baso-sute suntsitzaileetan jarduketak koordinatzeko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak izandako esku-hartzeari buruzkoa (10-22/POR-00253).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du kontseilariak azken egunotan Nafarroan gertatu diren baso-sute suntsitzaileetan jarduketak koordinatzeko izan duen esku-hartzeari buruz?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko azaroaren 16an Espainiako Gobernuaren ordezkariari igorritako gutunari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko azaroaren 16an Espainiako Gobernuaren ordezkariari igorritako gutunari buruzkoa (10-22/POR-00254).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak erantzun, informazio edo iradokizunen bat jaso al du Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko azaroaren 16an Espainiako Gobernuaren ordezkariari igorritako gutunari dagokionez?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Nafarroako Gobernuak COVID-19 legegintzaldian premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzko 10-22/PEI-00247 informazio eskaerarako eta 10-22/PES-00143 galderarako erantzuna zentralizatzeko arrazoiei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak COVID-19 legegintzaldian premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzko 10-22/PEI-00247 informazio eskaerarako eta 10-22/PES-00143 galderarako erantzuna zentralizatzeko arrazoiei buruzkoa (10-22/POR-00255).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik erabaki zuen kontseilariak Nafarroako Gobernuak COVID-19 legegintzaldian premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzko 10-22/PEI-00247 eskaerarako eta 10-22/PES-00143 galderarako erantzuna zentralizatzea?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Moves III funtsen kudeaketari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Moves III funtsen kudeaketari buruzkoa (10-22/POR-00256).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuak berak emandako datuen arabera, Nafarroa da Moves III funtsak hobekien kudeatu dituen autonomia-erkidegoa.

Kudeaketa eraginkor eta efizientea dagoela erakusteaz gain, zer ondorio ekarriko dio Nafarroari funts horiek hobekien kudeatu dituen erkidegoa izateak?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Nafarroako Gobernuaren neurriei buruzkoa, prezioen igoerari aurre egite aldera.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAKEGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andrekaurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren neurriei buruzkoa, prezioen igoerari aurre egite aldera (10-22/POR-00257).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko du prezioen igoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Osasun Departamentuan adin txikiko seme-alabak zaintzeagatik lanaldia murrizteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuan adin txikiko seme-alabak zaintzeagatik lanaldia murrizteari buruzkoa (10-22/POR-00258).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak ekainaren 28rako aurreikusita dagoen Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola azaltzen ahal duzu Osasun Departamentuan adin txikiko seme-alabak zaintzeagatik lanaldi- murrizketak ezestea?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa (10-22/POR-00259).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak ekainaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer estrategia proposatzen du zure departamentuak basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan psikologoak sartzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan psikologoak sartzeari buruzkoa (10-22/POR-00260).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2022ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zein dira departamentuaren planak eta bide-orria Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzan psikologoak sartzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an.

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, joan den ekainaren 16an Platena eta Infona planak aktibatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, joan den ekainaren 16an Platena eta Infona planak aktibatzeari buruzkoa (10-22/POR-00261).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Gobernuak 2022ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Babes Zibileko Lurralde Plana (PLATENA) eta Baso-suteen aurka jarduteko Plan Berezia (INFONA) helburu ezberdinak dituzten planak direnez, Gobernuak ulertu al zuen arrazoi-oren batengatik joan den ekainaren 16an biak aldi berean aktibatzea bateraezina zela?

Iruñean, 2022ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, joan den larunbatean Sánchez lehendakariak inflazioari begira iragarritako neurri-sortari eta horrek Nafarroan izanen duen eraginari buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, joan den larunbatean Sánchez lehendakariak inflazioari begira iragarritako neurri-sortari eta horrek Nafarroan izanen duen eraginari buruzkoa (10-22/POR-00262).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den ekainaren 30eko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu joan den larunbatean Sánchez lehendakariak inflazioari begira iragarritako neurri-sortari eta horrek Nafarroan izanen duen eraginari buruz?

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, izan daitezkeen sute-boladen aurreko prebentzio planei eta neurriari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, izan daitezkeen sute-boladen aurreko prebentzio planei eta neurriari buruzkoa (10-22/POR-00263).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ostegunean, 2022ko ekainaren 30eko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Nafarroan aldi berean gertatutako suteek lurraldeko zati garrantzitsu bat suntsitu zuten. Milaka hektarea kiskalita, etxebizitzak deseginda, eta galera ekonomiko ugariak.

Aste horretan biltzen ari ziren baldintzak kezagarriak ziren, suteak izateko muturreko arriskua iragartzen baitzuten. 42 oC-ko tenperaturak, lehortea, hezetasun indizea oso baxua. Eta gainera hegoaldeko haize indartsua.

Behin suteak hainbat tokitan gertatuta, suhiltzaileek eta basozainek hautatu behar izan zuten non jardun.

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko María Luisa de Simón Caballero andreak, Legebil-

Langile guztiak mobilizatuta ere, ezin izan zen ekidin ez sua hedatzea ez eta foku gehiago agertzea ere.

Nafarroan izandako sute-boladaren aurrean, aukerarik al zegoen aurreneurriak hartzeko uztei begira, edo suhiltzaileei zein basozainei oharta-

razteko muturreko arriskuko egoeraz? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du prebentziozko jarduketan plan bat egoera berrietarako?

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an.

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, Ukrainiaren inbasioaren ondoriozko nazioarteko krisiaren eraginak apaltzeko neurri-sorta berriari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ukrainiaren inbasioaren ondoriozko nazioarteko krisiaren eraginak apaltzeko neurri-sorta berriari buruzkoa (10-22/POR-00264).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2022ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nola kudeatuko du Nafarroako Gobernuak neurri-sorta berria Ukrainiaren inbasioaren ondoriozko nazioarteko krisiaren eraginak apaltzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an.

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, azken egunotan Nafarroa suntsitu duten suteen kudeaketaren ondorengo kargugabetzei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, azken egunotan Nafarroa suntsitu duten suteen kudeaketaren ondorengo kargugabetzei buruzkoa (10-22/POR-00265).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan Nafarroa suntsitu duten suteen kudeaketaren ondoren, beren karguetan mantenduko al dituzu lehen lehendakariordea eta Barneko Zuzendaritza Nagusian duen talde osoa?

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an.

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hiru kideak hautatzea.

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2022ko maiatzaren 30eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (73. NPAO, 2022-06-03koa), honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hiru kideen

hautaketarako aurkeztutako hautagaitzak aldarrikatzea. Hona hautagaiak:

– Ainhoa Unzu Garate, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Asier Baztan Beperet jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Koldo Amezketa Díaz jauna, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta (10-22/ELC-00006).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

